

***Elhuyar Zientzia eta
Teknologia*** aldizkariaren
**“Gai librean” atalean
argitaratzeko jarraibideak**

Atalari buruzkoak

Zer da “Gai librean” atala?

Elhuyar Zientzia eta Teknologia aldizkariak zientziaren dibulgazioan aritu nahi duten pertsoneri eskaintzen dien atala da “Gai librean”. Idazleak bere kasa prestatutako euskarazko dibulgazio-artikuluak argitaratzeko tokia da.

Nork idatz dezake “Gai librean” atalean?

Zientziaren dibulgazioan aritu nahi duen edonork idatzi dezake “Gai librean” atalerako artikulu bat. Ikertzailea bazara, hemen argitaratu dezakezu zure ikerketa-lanari buruzko dibulgazio-artikulu bat. Edo interesatzen zaizun zientzia-gai bati buruzko dibulgazio-artikulu bat.

Halaber, banaka edo taldean idatzitako artikuluak argitaratu ahal izango dira “Gai librean” atalean.

Beste aldizkariren batean argitaratuko artikuluak bidali ditzaket?

Ez. “Gai librean” atalean artikulu originalak eta inoiz argitaratu gabeak bakarrik onartu eta argitaratuko dira. Halaber, ez dira onartuko egileak edo egileek beste hizkuntzaren batean argitaratutako artikuluen zitzulpenak.

Artikuluaren ezaugarriei buruzkoak

Zein dira testuaren ezaugarriak?

“Gai librean” atalean zientziaren dibulgazio-artikulu orokorrak argitaratzen dira, edozein irakurlek ulertzeko moldez idatzitakoak.

Honako hauek dira artikuluaren atalak eta ezaugarriak:

- **Artikuluaren izenburua:** Jarri dibulgazio-mailako izenburu erakargarri bat artikuluari, eta mugatu sei hitzetara gehienez ere.
- **Artikuluaren sarrera-testua:** Gehienez 600 karaktere (hutsuneak zenbatuta). Irakurleari artikulua irakurtzen hasteko gogoia piztuko dion testua izan behar du. Artikuluan kontatuko duzunari erreferentzia egin behar dio sarrerak, baina sarrerak ez du izan behar artikuluan landuko denaren laburpena. Erakargarritasuna bilatu.
- **Testu-nagusia:** Gehienez 12.000 karaktere (hutsuneak zenbatuta). Testu nagusian ez erabili paragrafo luzeegiak, formulak edo zerrenda gisako egiturak. Ahal dela ez erabili

“2. irudian ikusten denez...” bezalako egiturarik; segidan irakurtzeko moduko testua idatzi. Testu nagusiaz gain, taulak/koadroak erabili informazio osagarria emateko, edo, gaiarekin zerikusia izan arren, aparte irakurtzeko moduko edukiak txertatzeko. Elementu horiek dinamismoa emango diote artikuluari eta hainbat mailatako irakurketa egiteko aukera.

- **Aparteko koadroak eta taula-kopurua:** Gehienez hiru. Koadroen eta taulen karaktere-kopurua testu-nagusiarekin batera zenbatu behar da. Guztien baturak ezingo du gainditu 12.000ko muga.
- **Irudi, argazki eta grafikoak:** 4-5 irudi, argazki edo grafiko argitaratu ohi dira artikuluko. Hala ere, egileak beharrezko irizten dion bezainbeste irudi, argazki eta grafiko proposatu ahalko ditu. Argazki-oinen bidez eman irudi, argazki edo grafiko bakoitzaren azalpena.

Zein dira argazkien ezaugarriak?

Testuarekin batera argitaratuko diren irudi, argazki edo grafikoak egileak jarriko ditu. Jabetza ezaguneko irudi, argazki edo grafikoak izango dira, eta ezinbestekoa da egileak haiek erabiltzeko baimena edukitzea.

Irudi, argazki edo grafikoek 300 puntuko bereizmena izan behar dute eta, gutxienez, 12 cm-ko zabalera.

Argazkilariaren edota irudigilearen izen-abizenak edota jabetza duen erakundearen izena adieraziko dira kasu guztietan.

Bibliografia aipatu behar dut?

Beharrezkoa da artikulua idazteko erabilitako bibliografia adieraztea. Erreferentzia bibliografikoak artikuluekin batera argitaratuko dira, eta, espazioak bibliografia laburtzea aginduko balu, egilearekin batera egingo da.

Zer datu bidali behar ditut?

- Egilearen edo egileen izena eta bi abizen
- Egilearen edo egileen sinaduran agertzea nahi duzun kargua, lanbidea eta ikasketamaila (adb; Maider Biurrun Lekuona, EHUko Ingeniaritza Eskolako irakaslea)
- Egile edo egileekin harremanetan jartzeko telefonoa eta e-maila.

Argitaratze-prozesuari buruzkoak

Nora bidali behar dut artikulua?

aldizkaria@elhuyar.com helbide elektronikora.

Zein da argitaratzeko prozedura?

Elhuyar Zientzia eta Teknologia aldizkariaren editore-batzordeak ebaluatzen du artikulua argitaratzeko egokia den. Baiezkotan, aldaketarik egitea komeni dela uste badu, egileari proposatzen dizkio aldaketak, eta referi-lanak egingo dizkion pertsona baten aholkularitza izango du egileak prozesuan zehar.

Egileak jarriko ditu testua eta irudiak, eta Elhuyarrek hartuko du bere gain hizkuntza-zuzenketak eta maketa egiteko lana. Gai librean atalean argitaratuko artikuluko guztiek Elhuyarren hizkuntza-zerbitzuek emandako hizkuntza-kalitatearen bermea izango dute, eta egilearen oniritzia jasoko dute argitaratu aurretik.

Noiz jakingo dut artikulua onartu ote den?

Artikulua bidali ondoren, gehienez ere hilabeteko epean jakinaraziko du *Elhuyar Zientzia eta Teknologia* aldizkariaren editore-batzordeak artikulua argitaratzeko egokitzat jotzen duen.

Noiz argitaratuko da artikulua?

Artikulua onartuz gero, kasuan kasu zehaztu eta adostuko dugu egilearekin *Elhuyar Zientzia eta Teknologia* aldizkariaren zein zenbakitan argitaratuko den lana.

Jabetza intelektualari eta egile-eskubideei buruzkoak

Norena da artikulua jabetza intelektualak?

“Gai librean” atalean argitaratutako artikuluen jabetza intelektualak egilearena izango da beti. Egileak Elhuyarren aldeko ustiapen-lagapen ez eskusiboa egingo du.

Alabaina, artikulua argitalpen-prozesuan Elhuyarrek egindako zuzenketen, maketaren eta bestelako ekarpenen jabetza Elhuyarrena izango da, eta egileak ezingo du “Gai librean” atalean argitaratutako emaitza bere horretan berrerabili edo argitaratu Elhuyarren baimenik gabe.

Zer ustiatze-eskubide ditu Elhuyarrek?

Baldintza hauek onartzearekin bat, egileak (edo egileek) “Gai librean” ataleko artikulua gaineko erreproduzio- eta banaketa-eskubideak lagatzen dizkio Elhuyarri. Lagapen hori dela

medio, Elhuyarrek, besteak beste, *Elhuyar Zientzia eta Teknologia* aldizkarian eta www.aldizkaria.elhuyar.eus eta www.zientzia.eus webguneetan argitaratu ahal izango ditu artikuluak.

Zer lizentziapean argitaratuko da artikulua?

Elhuyarren jabetzako edukia Creative Commons lizentziapean argitaratzen da, "[Aitortu – Berdin partekatu \(CC-BY-SA 3.0\)](#)" lizentzia, eta egileak besterik adierazten ez badu, lizentzia horren pean argitaratuko da "Gai librean" ataleko artikulua.

Zer ordain jasoko dut?

"Gai librean" atalean argitaratzen diren artikuluak ez dute izango kontraprestazio ekonomikorik. Egileak (edota egileetako bakoitzak) artikulua daraman *Elhuyar Zientzia eta Teknologia* aldizkariaren hiru ale jasoko ditu.

Zer erantzukizun dut hirugarrenaren jabetza-eskubideekiko?

Artikulua *Elhuyar Zientzia eta Teknologia* aldizkariaren "Gai librean" atalera aurkeztuz gero, egileak edota egileek bermatuko dute ez dutela aurkezten inolako materialik hirugarrenen jabetza intelektual edo industrialaren eskubiderik urratzea dakarrenik. Elhuyarrek ez du bere gain hartuko egileek egindako hirugarrenen jabetza intelektualaren edo industrialaren inolako eskubide-urratzerik, eta egileek Elhuyar kalterik gabe atxikiko dute hirugarrenen edozein erreklamazioren aurrean, eta, bereziki, beren jabetza intelektualaren edo industrialaren eskubide-urratzearen aurrean.

Halaber, artikuluak ez diote eraso egin behar pertsona fisiko edo juridikoen jabetzari, osotasunari edo irudi onari.

Galderak eta zalantzak argitzea

Norekin jarri behar dut harremanetan bestelako zalantzak argitzeko?

"Gai librean" atalari buruzko zalantzak eta galderak argitzeko, hau da harremanetarako helbidea:

Elhuyar Zientzia eta Teknologia aldizkaria. Osinalde industrialdea, Zelai Haundi kalea, 3. 201070 Usurbil. Gipuzkoa.

Egoitz Etxebeste Aduriz
aldizkaria@elhuyar.com

Tel.: 943 36 30 40